



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko otsailaren 26a

31. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuak Cementos Portland-Valderrivas enpresarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Fiteroko Santa María la Real monasterioko klaustroa zaharberritzeko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Osasuna Klubaren alde emandako abalaren zenbatekoari eta klubak emandako bermeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko foru lege proiektua izapidetzeari eta proiektua Parlamentura igortzeko epeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Santakarako erretaula nagusia zaharberritzeko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarraren 2011ko maiatzaren 27ko 1815. Ebazpenean jasotako gomendioen aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Tafallako “Marqués de la Real Defensa” ikastetxe publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, udal lurretan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bat eraiki dadin Aiegiko Udalak egindako eskaerari Hezkuntza Departamentuak emandako erantzunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Dominari buruzkoa eta Francisco Franco Bahamonde Nafarroaren adopziozko seme izatearen izendapena ezeztatu eta indarrik gabe utz zedin premiatzen zuen Nafarroako Parlamentuaren erabakia betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, koloneko minbizia prebenitzeko programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen honako Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa: "Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen." Proiektu hori 2015eko otsailaren 6ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

"1. Luzatu egiten dira ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legeko 1.1 artikuluan aurreikusitako neurri urgenteak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arlokoak.. Hona testua: "Zerbitzu aktiboan gehiago iraun nahi duen funtzionarioak hala eskatu beharko dio, idatziz, lan egiten dueneko administrazio publikoari, hirurogeita bost urte beteko dituen eguna baino gutxienez bi hilabete lehenago, eta luzapen hori lortu ahalko du, baldin eta lan egiten dueneko administrazio publikoak eskabidea onartzen badio, soilik.

2. Halaber, 2015erako luzatzen dira Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko zenbait neurri urgenteak, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 6. eta 8. artikuluetan aurreikusitakoak.

3. Aipatu legeko 6. artikuluari dagokionez, "erabilera berezia" delako modalitateari dagokionez, aurreikusitako mugak mantenduko dira".

Zioak: a) Gure ustez, ez dira luzatu behar langileen arloko neurri urgenteak, une ekonomiko honetan ez direlako ematen orduko inguruabar berberak. Salbu eta ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legeko 1.1 artikuluko neurriak, zerbitzuaren beharrianengatik erretiroa 65 urterekin hartzeari buruzkoak, testu berrian proposatzen den bezala.

b) Zerbitzuagatik dietei buruzko 5. artikulua kentzea proposatzen da, funtzionarioek aitorturik daukaten eskubide bat delako. Aldaketa egin beharko balitz, aurrena sindikatuekin negoziatu beharko litzateke, eta hala erabakiko balitz, legea aldatu beharko litzateke gero, baina inposiziorik gabe, orain egin nahi den bezala.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"2012ko abenduan kendutako aparteko ordain-sariaren ehuneko 25 ordainduko da berehala, kasuko interesak barne. Gainontzeko ehuneko 75 ordainduko da Estatuak aurreikusitako inguruabar ekonomikoek horretarako bidea ematen baldin badute".

Zioak: Bai Espainiako Gobernuako Ogasuneko ministroak bai Nafarroako Gobernuaren ordezkariak onartu dute hobera egin duela susperraldi ekonomikoak eta horrek ahalbidetzen duela 2012ko aparteko ordainsaritik ordaintzeke dagoenaren parte bati aurre egitea.

Hori lortu da, zalantzarik gabe, funtzionarioen lanari eta ahaleginari, ekinari eta lan onari esker; hortaz, uste dugu atzerapen hori legezko interesekin ordaindu behar dela nahitaez, eta aurreikusi behar dela gainontzekoa ordaintzea inguruabar ekonomikoek Estatuari neurri hori hartzea ahalbidetuz gero.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak Cementos Portland-Valderrivas enpresarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Víctor Rubio Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak Cementos Portland-Valderrivas enpresarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 9ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Cementos Portland-Valderrivas enpresarekin sinatutako hitzarmenari buruz (8-14-/PES-00240). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

1.- 2012ko ekainaren 21ean, Nafarroako Foru Komunitateko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuen Cementos Portland Valderrivas S.A. enpresarekin, ingurumen arloko honako helburu hauek lortzeko, hitzarmeneko bigarren klausulan berariaz azaltzen den bezala:

- Hondakin arriskugabeen eta biomasaren balorizazioa sustatzea, eta Nafarroan sortutako hondakin arriskugabeen balorizazioa areagotzea.
- CO₂ emisioen balioak murriztea Cementos Portland Valderrivas, S.A.ren Olaztiko lantegian eta Nafarroako Foru Komunitate osoan.

- Clinker labearen emisioak zaindu eta kontrolatzeko mekanismoetan aurrera egitea.
- Zenbait hondakinen ingurumen-kudeaketarako sistema garatu eta ezartzea, gero hondakin horien balorizazio energetikoa egiteko.

2.- Hitzarmeneko hirugarren klausulak dio Nafarroako Gobernuak sustatu egingen duela I. eranskinetako zerrendan ageri diren hondakinak, Nafarroako Foru Komunitatean sortuak, erregai gisa edo/eta lehengai gisa baloriza daitezkeen Cementos Portland Valderrivas, S.A.k Olaztiko lantegian, eta, xede horrekin, bizkortu egingen duela enpresa horren eta balorizatu beharreko hondakin arriskugabeak sortzen dituzten sektoreen arteko negoziazioa, eta behar diren mekanismoak ezarri ahalko dituela hondakin-sortzaileen eta enpresa balorizatzaileen arteko adostasunera iristeko, akordioan jasotako balorizazio-helburuak bete ahal izan daitezkeen.

3 eta 4.- Hitzarmenaren jarraipen batzordeak lehenbiziko eta azkeneko bilera egin zuen 2013ko martxoaren 25ean. Espainiako porlan fabrikazioaren sektorearen egungo egoera dela eta, enpresak ez du hondakinen balorizazio energetikorako behar diren instalazioak egiteko asmorik agertu. Beraz, ez da aurrera egin hitzarmenaren garapenean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 2an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Fiteroko Santa María la Real monasterioko klaustroa zaharbertzeko obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Fiteroko Santa María la Real monasterioko klaustroa zaharbertzeko obrei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 9ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Fiteroko Santa María monasterioko klaustroa zaharbertzeko obrei buruz (PES- 00249). Hau erantzun du Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Fiteroko monasterioko klaustroa zaharbertzeko obrak ez dira 2014an amaitu, eta 2015ean zehar segituko dute.

Fiteroko turismo bulegoak monasterioa ikusteko bisita gidatuak antolatzen ditu. Udalaren web orrian obrei eta monasterioari buruzko informazioa dago, eta Nafarroako Gobernuaren turismo orrian ere bai.

Obrak amaitu eta haien emaitza ikusten denean, monasterioa gehiago ezagutuko da, bisita gehiago eginen dira eta Gobernuaren hedapen eta zabalkunde planak indartu eginen dira, gure Komunitateko monumentu garrantzitsuenetakoa baita monasterioa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urtarrilean

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako Gobernuak Osasuna Klubaren alde emandako abalaren zenbatekoari eta klubak emandako bermeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak Osasuna Klubaren alde emandako abalaren zenbatekoari eta klubak emandako bermeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 28ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera aurkeztu du Club Atlético

Osasunaren abal eta bermeei buruz (8-14/PES-00231). Galdera hori 2014ko azaroaren 17ko 3158 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1.- Nafarroako Foru Komunitateak Club Atlético Osasunari emandako abalaren saldo bizia.

7.212.145,21 euro, 2014/05/20an.

2.- Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearentzat eratutako bermeak.

Otsailaren 14ko 1/2003 Foru Legeak 18.030.363,13 euroko abala eman zion Club Atlético Osasunari. 2003ko maiatzaren 20an, Iruñeko Elkargoko Francisco Salinas Frauca notarioaren aurrean, egun hartan Club Atlético Osasuna titular

zuten ondasun higiezin gaineko hipoteka eratzeko eskritura egiletsi zen. Eskrituran hau ohartarazi zen: 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, eraturako hipoteka ez zela aski Nafarroako Foru Komunitateak emandako abalak bermatzeko.

Gaur egun honako hauek dira Nafarroako Foru Komunitatearen alde hipotekatutako ondasunak:

Zk.	Jabetza erregistroa	Erregistroko finka	Katastroko lurzatia	Kokapena	Erregistroko azalera
1**	Agoitz 1	11039	3/571 (zati bat) 3/819 (zati bat)	Taxoare	252.723,00
2*	Iruña 7	17394	5/1648/1/1etik 29ra /5/1	Futbol zelaia	20.411,75
6*	Iruña 7	9871	5/1141	Zelaiaren ondoko pieza	13.809,66
7	Iruña 2	20175	4/108/1/34	Etxebizitza	168,87
8	Iruña 2	20177	4/108/1/35	Etxebizitza	113,72
9	Agoitz 1	5765	¿?	Lur zerrenda	258,00

3.- Ondare Zerbitzuak egindako kontrol eta ikuskapen lanak

Club Atlético Osasunari abalaturako kreditu polizak amortizatzen urteko kuoten ordainketen jarraipena eta kontrola.

Club Atlético Osasunak eskaintako bermeen jarraipena eta kontrola.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko foru lege proiektua izapidetzeari eta proiektua Parlamentura igortzeko epeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko foru lege proiektua izapidetzeari eta proiektua Parlamentura igortzeko epeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 9ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak idatziz erantzuteko galdera egin du emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko foru lege proiektua izapidetzeari eta proiektua Parlamentura igortzeko epeei buruz (8-14/PES-00245). Hau da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko lege aurreproiektuaren testua parte-hartze prozesu batean jorratu zen, ekarpenak biltzeko. Kontsulta fase horren helburu nagusiak izan ziren etorkizuneko legearen inplementazioan esku har-

tuko duten sektore nagusien iritziak biltzea, eta, bestetik, hura hobetzeko egokitzat jotzen ziren ekarpenak eranstea, testuaren giza eskubideei eta generoari buruzko ikuspegiari eutsiz.

Horretarako, eta ahalik eta parte-hartzerik zabalena lortze aldera, lan saioak antolatu ziren hainbat egunetan. Saio bakoitzean diagnostikoa, oinarrien agiria eta testu artikuludunaren proposamena aurkeztu ziren eta legearen edukiak landu ziren ekarpenak jasotzeko. Hartara emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko legea parte-hartze prozesu garden eta adostu baten emaitza izanen da.

Prozesu horretan, 8 lantalde osatuta, guztira 152 profesional, alderdi politiko, sindikatu, lanbide elkargo eta gizarte entitate aritu dira, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzen dutenak, zein bere esparruan, eta 284 ekarpen jaso dira. Behin prozesu hori amaiturik, bildutako ekarpenak eta Genero Indarkeriarako Gobernu Idazkaritzak eta Barne Ministerioko Segurtasune-

rako Estatu Idazkaritzak igorritakoak aztertu ondoren, Nafarroako Gobernu departamentuei bidali zitzaizkien, balorazioa egin zezaten.

Lege aurreproiektuaren testu berria idatzi ondoren, parte-hartze publikorako jarri da urtarrilaren 17ra arte.

Fase hori bukatzen denean, berriro ere, biltzen diren ekarpenak erantsiko dira eta departamentuei bidaliko zaizkie balora ditzaten (urtarrila-otsaila). Geroago, otsailean, lege aurreproiektua Nafarroako Berdintasunerako Kontseilura eramanen da, eta behar diren txosten guztiekin batera helaraziko zaio Legegintza Zerbitzuari. Martxoan eraman nahi zaio Gobernuari, gero Parlamentuan aurkezteko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 5ean.

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Santakarako erretaula nagusia zaharberritzeko obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Santakarako erretaula nagusia zaharberritzeko obrei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 9ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Santakarako erretaula nagusia zaharberritzeko obrei buruz (PES-00248). Hau erantzun du Nafarroako Gobernu bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Santakarako Jasokundeko Andre Mariaren parroikia-elizako erretaula ondasun inbentariatua

da, NA-2-17-000141-000/002 zenbakikoa. Indarra duen araudia betez, Ignacio Erdozain Castiella jaunak, Santakarako Jasokundeko Andre Mariaren parrokiako parrokoak, esku hartzeko baimena eskatu zion Departamentuari.

Aurkeztutako proiektua baloratu ondoren, erretaula nagusia kontserbatzeko eta zaharberritzeko lanetarako baimena eman zen, esku-hartze horrek Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legean ezarritakoa betetzen baitzuen. Oraindik egin gabe daude amaierako ikuskapena eta esku-hartzearen Memoriaren onarpena.

Departamentuak ondare historikoari buruz egiten duen hedapen eta zabalkunde lan orokorraz gainera, aurkeztu eta onetsitako proiektuan jasorik dago amaierako hitzaldi bat ere egiten dela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urtarrilean

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarraren 2011ko maiatzaren 27ko 1815. Ebazpenean jasotako gomendioen aplikazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarraren 2011ko maiatzaren 27ko 1815. Ebazpenean jasotako gomendioen aplikazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 28ko 133. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-14/PES-00234), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak:

Europako Kontseiluaren 1815 (2011) Ebazpenak, eremu elektromagnetikoen izan ditzaketen arriskuei eta ingurumenaren duten eraginari buruzkoak, gomendioen zerrenda luzea dakar, gai oso orokorrak eta bestelako gaiak biltzen dituena, hala nola telefono mugikorren erabilera, WiFi, WiMAX, WLAN, haurtxoen monitoreak, haurren babesak, linea elektrikoaren planifikazioa, telefonia mugikorren estazioen planifikazioa, arriskuen ebaluazioa etab.

Aipatzen dituen kasu guztietarako, uhin elektromagnetikoen presentziari ALARA printzipioa (*as low as reasonable achievable* –zentuz onar daitezkeen bezain txikia–) aplikatzea gomendatzen du. Nafarroako ikastetxe publikoetan printzipio hori errespetatzen ari da, jarraian ikusiko dugunez.

Ebazpenak egiten dituen gomendio gehienak, ordea, ez dira Hezkuntza Departamentuaren eskumenekoak, edo ez daude soilik haren esku.

Departamentuak jarduteko eskumen handiagoa duen gaiei dagokienez, hau esan behar da:

–8.3.2 gomendia dela eta (*for children in general, and particularly in schools and classrooms, give preference to wired Internet connections, and strictly regulate the use of Mobile phones by schoolchildren on school premises*):

- Ikastetxe gehienetan ikasleek debekaturik dute telefono mugikorra erabiltzea, edo aurretik baimena eskatu behar dute. Bi kasuetan, uhin elektromagnetikoen ugaritzea ekiditen da.

Nolanahi ere, gaur egun telefono mugikorren erabilera edo murrizketa ikastetxe bakoitzaren barne araudiaren mende dago. Departamentua lanean ari da mugikorren erabilera arautzen zenbait kasutan, zeinetan, aipatutako ebazpena aplikatuta, ez bailuke eraginik izanen Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleengan, eta erabilerak murriztuta jarraituko bailuke.

– Interneterako kable bidezko konexioak lehenesteko gomendioari dagokionez, honako hau egiten ari da:

- WiFi sareak instalatu dira arrazoi teknikoengatik edo antolaketa arazoengatik Interneterako teknologia horren beharra izan duten ikastetxeetan.

- Bestalde, ez da WiFi sare gehiago instalatuko, salbu eta justifikazio sendoa dagoenean eta beste ezein teknologiarik ordeztu ezin duenean. Ildo beretik, eskaerak kasu aztertzen dira, kontuan izanik bai ikastetxearen beharrak bai eskaeraren arrazoi teknikoak, hezkuntzakoak, antolaketaren ingurukoak edo kudeaketaren arlokoak.

- Ikastetxe bat handitzen denean edo ikastetxe berri bat eraikitzen denean kablea jartzen da, ez da inolako WiFi instalaziorik jartzen. Sarritan irakasleek eskatzen dute, ordea, goian azaldutako arrazoiengatik.

- WIMAX konexioei dagokienez, Hezkuntza Departamentuaren irizpidea da halakoak kentzea eta haien ordez kablea jartzea ahal den leku guztietan. Aldian behin egoera aztertzen da eta jarduketak egiten dira, operadorearen hedapenak bide ematen badu.

- Instalazio gehien-gehienak Nasertic enpresa publikoak egin edo gainbegiratu ditu, legezko emisio-mugak gainditu gabe. Hain zuzen ere, sare horien erradiazio mailak araudi indarduan onartutako gehienekoak baino askoz txikiagoak dira.

– 8.4 atalak dakartzan gaiei dagokienez (*planning of electric power lines and relay antenna base stations*):

- Telefonía mugikorreko antenak eta goi tentsioko lineak direla eta, Hezkuntza Departamentuaren helburua da batzuk zein besteak ikaste-txeetatik ahalik eta urrutien egotea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, Tafallako “Marqués de la Real Defensa” ikastetxe publikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tafallako “Marqués de la Real Defensa” ikastetxe publikoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 9ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tafallako “Marqués de la Real Defensa” ikastetxe publikoari dagokionez, jakite aldera ikastetxe horretan aurreikusitako mantentze- nahiz hobekuntza-jarduketak eta inbertsioa, horretarako jarritako baliabideen zenbatekoa eta jarduketa horien egutegia (8-14/PES-00243). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuo Hezkuntzako kontseilariak:

1. Lehenik, Administrazio Autonomikoaren eta Toki Administrazioaren eskumenei buruzko kontu batzuk argitu behar dira, galderan aipatutako jarduketek dagokienez:

Administrazio Zentralak, Administrazio Autonomikoak eta Toki Administrazioak Hezkuntzan parte hartzeko arauak ezarri dira Europako herrialdeetan. Arau bidez zehaztu da haietako bakoitzak zer eskumen duen funtsezko eginkizunetarako, besteak beste hezkuntza egiturak sortu eta mantentzeko. Herrialdeen arteko desberdintasunak daude, eta Finlandiaren kasua nabarmena da:

herrialde horretan udalen esku dago Hezkuntzaren kostuaren % 43 finantzatzea.

Gure herrialdean, Hezkuntza Sistemari buruzko oinarriko araudian xedatutakoarekin bat, Hezkuntza Administrazio Autonomikoaren eskumena da eskolatze beharrak asetzeko behar diren espazioak sortzea (ikastetxe berriak eraikitzea eta unitateak handitzea), bai eta kasuan kasuko ikasketak emateko irakaslez eta ekipamenduz hornitzea ere. Bestalde, toki administrazioen eskumena da (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 8. artikulua eta hamabosgarren xedapen gehigarria) Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoak kontserbatu, mantendu eta zaintzea.

Hala, Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuan, Hezkuntza Departamentuari dagokio ikastetxeak eraikitzea eta handitzea. Behin eraikita, kasuan kasuko udalari eskualdatzen zaizkio eta ordutik aurrera udalak dira eraikinen jabeak eta haien mantendu, garbitu eta zaindu behar dituztenak. Eraikinen jabetza eta eraikinen mantentzeko ardura toki entitateei emateak eskola instalazioen eguneratzea eta egoera ona errazten ditu, eta haien erabilera hobetzea ahalbidetzen du, eskola jarduerarekin bateragarriak diren beste erabilera batzuk sustatuz, udalerriko bizilagun guztien zerbitzurako izan daitezkeenak (gizarte erabilerak, aisia, kultura, hezkuntza, kirola etab.).

Udal eskumenei norainokoari dagokionez, Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeak 129. artikuluan argitzen digu zer diren “kontserbazioa eta mantentzea,” hau esanez: *kaltea ondasunaren erabiltzearen erabiltzeaz etorri baldin bada, hori bere onera bueltatzeko obrak kontserbaziokoak izanen dira*. Halaber, kontserbazioa eta mantentze obren edukia argitzen

duen definizio bat dago udal lizentzien eruedetan. Honela definitzen da haien xedea: *“Obra horien xedea da eraikinaren segurtasun, osasungarritasun eta apaintasun baldintza egokiak mantentzea, eraikinaren egitura euslea, egitura arkitektonikoa eta banaketa aldatu gabe”*.

Aurrekoa ikusirik, ez dagokio Hezkuntza Departamentuari Tafallako “Marqués de la Real Defensa” ikastetxe publikoko mantentze eta egitura obrak planifikatzea. Hori ez da oztopo izanen Departamentua eta Udala lankidetzan estuan aritzeko, konponbide tekniko egokien bila nahiz konponbide horien finantzaketan, urtero xede horretarako toki entitateei ematen zaizkien diru-laguntzen deialdi publikoaren bitartez.

2. Hezkuntza Departamentuaren eskumenekoak diren inbertsioei dagokienez, Tafallako “Marqués de la Real Defensa” ikastetxe publikoan honako jarduketa hau planifikatu da 2015eko lehen sei hilabeterako: ikastetxeko altzariak eta ekipamendua eguneratu eta bateratzea. Esku-hartze horretarako 30.200 euroko kostua aurreikusi da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 31n

Hezkuntzako kontseilaria, José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, udal lurretan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bat eraiki dadin Aiegiko Udalak egindako eskaerari Hezkuntza Departamentuak emandako erantzunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, udal lurretan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bat eraiki dadin Aiegiko Udalak egindako eskaerari Hezkuntza Departamentuak emandako erantzunari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 9ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, udal lurretan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bat eraiki dadin Aiegiko Udalak egindako eskaerari Hezkuntza Departamentuak emandako erantzunari buruz (8-14/PES-00247). Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak honako erantzun hau igorri dio:

Eskaerari erantzun aurretik, adierazi nahi dugu Aranoa foru-parlamentari andreak 2014ko azaroaren 27an aurkeztu zuela idatziz erantzuteko galdera hori Nafarroako Parlamentuko sarrera erregistroan, Aiegiko Udalak berak bere eskaera aurkeztu baino bost egun lehenago. Izan ere Udalak 2014ko abenduaren 2an aurkeztu zuen eskaera Hezkuntza Departamentuko Erregistro Bulegoan.

Hori esanda, jakinarazten dugu Hezkuntza Departamentua Aiegiko Udalaren proposamenaren nondik norakoak aztertzen ari dela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 31n

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, Nafarroako Dominari buruzkoa eta Francisco Franco Bahamonde Nafarroaren adopziozko seme izatearen izendapena ezeztatu eta indarririk gabe utz zedin premiatzen zuen Nafarroako Parlamentuaren erabakia betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Dominari buruzkoa eta Francisco Franco Bahamonde Nafarroaren adopziozko seme izatearen izendapena ezeztatu eta indarririk gabe utz zedin premiatzen zuen Nafarroako Parlamentuaren erabakia betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 12ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak galdera egin du Nafarroako Dominari buruz eta Francisco Franco Nafarroaren adopziozko seme izatearen izendapena ezeztatu eta indarririk gabe utz zedin premiatzen zuen Nafarroako

Parlamentuaren erabakia betetzeari buruz (PES-250/14). Hau erantzun du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

1975eko apirilaren 23an Francisco Francori Nafarroako Domina eman zitzaion. Eranskinetako zerrendan ageri da harrezkero zein pertsona, erakunde eta talderi eman zaien Nafarroako Domina eta bakoitzari zein urtetan eman zaion.

Espediente egokia izapidetzen ari da, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta erreprezioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen 12. artikuluan eta araudi aplikagarrian xedatutakoari jarraituz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 9an

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

8-14/PES-00250 ERANSKINA

1977	José López Portillo jauna
1982	Juan Pablo II.a aita santua
1984	Julio Caro Baroja jauna eta José María Lacarra jauna
1985	Nafarroako Odol Emaileen Elkarte
1988	Juan Carlos I.a eta Sofia errege-erreginak
1989	Jose Migel Barandiaran Aierbe jauna eta Alfredo Floristán Samanes jauna
1990	Juan David García Bacca jauna eta Karitateko Alabak
1991	Ángel Martín Duque jauna eta Adriana Beaumont Galdúroz andrea
1992	Jorge Oteiza Embil jauna
1993	Juan Borboikoa eta Battenbergekoa, Bartzelonako kondea
1994	Nafarroako Elizbarrutiko Caritas
1995	Nafarroako Medicus Mundi
1996	Miguel Indurain Larraya jauna
1997	Nafarroako Unibertsitatea
1998	Nafarroako misiolariak
1999	ANFAS
2000	Terrorismoaren biktimak
2001	Salestarren kongregazioa
2002	Diario de Navarra
2003	Pablo Hermoso de Mendoza jauna
2004	Volkswagen Navarra
2005	Argentinako Buenos Aires, Rosario, Mar del Plata, Bolívar eta Mendoza hirietako nafarren etxeak eta Txileko Nafarren Etxea
2006	Iruñeko Erruki Etxea
2007	Espainiako Gurutze Gorria - Nafarroako Batzordea
2008	Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa, Nafarroako Langileen Batasun Orokorra eta Nafarroako Langile Batzordeak
2009	Nafarroako Nekazari eta Abeltzainen Batasuna eta Nafarroako Nekazaritza Kooperatiben Batasuna
2010	Iruñeko Orfeoia
2011	Done Jakue Bidearen Nafarroako lagun elkarteak
2012	Nafarroako Unibertsitate Publikoa
2013	Nafarroako ONCE
2014	Nafarroako industria sustatzeko 1964ko programaren bultzatzaileak

Galdera, koloneko minbizia prebenitzeko programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazcano andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, koloneko minbizia prebenitzeko programari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 29ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazcano andreak idatziz erantzuteko galdera egin du koloneko minbizia prebenitzeko programari buruz: "Programa noiz zabalduko da herritar guztientzat? Zer zentrotan eta oinarrizko eskualdetan ari da egiten? Programa baliatzeko moduan dauden herritarren artean zer ehuneko ari da programan parte hartzen? Zehaztu, osasun barrutien arabera" (8-14-PES-00258). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Osasuneko konseilariaren erantzuna:

1. Programa noiz zabalduko da herritar guztientzat?

2015eko urrian amaituko da lehen itzulia, zein jada biztanleen erdiak sartuko baitira. 2015eko azarotik aurrera lehen gonbidapenak hasiko dira programako bigarren itzulirako, eta itzuli horrek 2017ko urrira arte iraunen du.

Itzuli hori amaitzen denean, 2017ko azaroan, % 100eko estaldura lortuko da.

2. Zer zentrotan eta oinarrizko eskualdetan ari da egiten?

Ezarritako programazioari jarraituz, 2013ko azarotik 2015eko urrira bitartean egiten ari den lehenengo itzuli honetan 86.000tik gora pertsonari eskainiko zaie bahetze-proba, Nafarroako xedebiztanleen erdiei.

Hau da, gaur egun, lehen itzuli honetarako programatutako eskualdeen egoera:

- Amaitutako eskualdeak

Dagoeneko 6 eskualde itxi dira (22.766 pertsona), hau da, gonbidapen eta oroigarri guztiak bidali dira. Dena den, eskualde horietan bizi den norbaitek oraindik gonbidapenik jaso ez badu edo parte hartu ez badu, kolon eta ondesteko minbizia garaz detektatzeko programarekin harremanetan jar daiteke proba egiteko. Izan ere, ia egunero bidaltzen eta jasotzen da kit-en bat.

Eskualdea	Biztanle-kopurua	Zer egunetan bidali ziren lehen gonbidapenak		Zer egunetan bidali ziren oroigarriak		Noiz itxi zen
Tutera mend.	3.303	15-aza-13	6-mai-14	29-urt-14	13-abuz-14	17-aza-14
Donibane	6.518	26-aza-13	18-otsa-14	29-urt-14	28-mai-14	6-urria-14
Milagrosa	3.382	28-urt-14	14-api-14	2-api-14	23-uzt-14	3-aza-14
Ermitagaña	5.394	4-mar-14	2-eka-14	7-mai-14	10-ira-14	15-abe-14
Uharte	2.982	29-api-14	10-eka-14	2-uzt-14	17-ira-14	15-abe-14
Buztintxuri	1.187	3-eka-14	3-eka-14	6-abuz-14	10-ira-14	15-abe-14

• Lehenengo gonbidapen guztiak bai, baina oroigarri guztiak bidalita ez dauden eskualdeak.

Multzo horretan 5 eskualde daude, guztira 11.864 pertsona.

Aurreko kasuan bezala, eskualde horietan bizi den norbaitek gonbidapenik jaso ez badu, kolon eta ondesteko minbizia garaiz detektatzeko programarekin harremanetan jar daiteke, ziur aski helbidearen daturen bat oker dagoelako.

Eskualdea	Biztanle-kopurua	Zer egunetan bidali ziren lehen gonbidapenak	
Lizarra	4.850	12-abe-13	9-abe-14
Mendillorri	5.072	16-ira-14	11-aza-14
Izaba	321	18-aza-14	18-aza-14
Etxabakoitz	1.076	25-aza-14	25-aza-14
Auritz	545	2-abe-14	2-abe-14

• Oraindik lehenengo gonbidapenak bidaltzen ari diren eskualdeak.

Hiru eskualdetan (15.945 pertsona) oraindik ez da amaitu lehenengo gonbidapenen bidalketa.

Eskualdea	Biztanle-kopurua	Zer egunetan bidali ziren lehen gonbidapenak	
Tutera eki.	5.855	20-mai-14	Aurreikusita: 10-mar-15
Iturrama	6.368	9-ira-14	Aurreikusita: 10-mar-15
Atarrabia	3.722	25-aza-14	Aurreikusita: 2015/01/06

Hiru multzoetan, guztira, 50.000 pertsona pasatxo biltzen dira, itzuli honetarako programatutako xede-biztanleen ia % 60.

- Hasi gabe dauden eskualdeak

Hasi gabe dauden eskualdeetarako hasiera data hauek ezarri dira:

Eskualdea	Biztanle-kopurua	Aurreikusi den hasiera data	Azken gonbidapena aurrekositako data
San Adrián	3.641	20-urt-15	29-ira-15
Azpilagaña	4.506	27-urt-15	10-mar-15
Txantrea	5.892	17-otsa-15	19-mai-15
Alde Zaharra I. Zabalgunea	3.710	24-mar-15	12-mai-15
Corella	2.854	24-mar-15	13-urria-15
II. Zabalgunea	5.072	26-mai-15	15-urria-15
Arrotxapea	5.912	2-eka-15	27-urria-15
Sanduzelai	3.258	22-ira-15	20-urria-15
Sarriguren	666	27-urria-15	27-urria-15

3. Programa baliatzeko moduan dauden herri-tarren artetik zer ehuneko ari da programan parte hartzen? Zehaztu, osasun barrutien arabera.

Orain arte eskualde hauek itxi dira: Arrosadia, Donibane eta Tuterako Mendebalde. Guztira, parte-hartzea % 65,13koa da. Donibanen lortu da parte-hartzerik handiena (% 68,99). Ondoren Tute-

rako Mendebalde dago (% 61,92), eta azkenik Arrosadia, puntu bakarreko aldearekin (% 60,98).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 16an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín